

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h** duzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 500 hitz gehienez. 	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	30 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

TOMATEA, NOBLEENTZAKO SAGAR POZOITSUA

1541ean Italiara berenjena berri bat iritsi zela esan zuen Pietro Andrea Mattioli medikuak eta botanikariak. Gorria edo urre kolorekoa zen, eta gatza, piperra eta olioia botata jan ahal zen. *Pomo d'oro* (urrezko sagarra) deitu zioten italiarrek, baina Europako hizkuntza gehienetan aztekek eman zioten izena hartu zuten oinarri, eta hortik dator *tomate* hitza.

Mattiolik tomatea jangarria zela adierazi arren, luzaroan, Europako toki gehienetan soilik ornamentaziorako landu zuten, pozoitsua omen zelako. John Gerard botanikari britainiarrek, esaterako, toxikoa zela idatzi zuen 1597an. Egia da Europan hainbat pertsona pozoitu zirela tomatea janda, gehienak nobleziako kideak, eta baten bat hil ere egin zela. Baina orduan ez zekiten zergatik ez ziren pozoitzen aztekek, eta pozoiak zergatik eragiten zien bereziki aristokratei. Esaterako, XVII. mendearen amaieran, Napolesen pizzagileak ordura arteko pizza zurietan tomatea gehitzen hasi zirenean, kontsumitzaileak ez ziren intoxikatzen, tomatea opil lauaren gainean jartzen zelako, hau da, ez zelako zuzenean plater gainean kontsumitzen. Kontua da garai hartan herritar aberatsenek peltrezko platerak eta mahai-tresnak erabiltzen zituztela otorduetan. Peltrea hainbat metalen aleazioa da, besteak beste, beruna. Tomatearen azidoen eraginez, platerak eta tresnak beruna askatzen zuten, eta horixe zen jankideak pozoitzen zituena, ez tomatea bera. XVIII. mendea amaitu baino lehen, toxikotasunaren eztabaida argituta, *Encyclopaedia Britannica* jaso zuen tomatea egunero kontsumitzeko produktua zela.

Mende bat geroago, ordea, tomatearen kontsumoa gorantz ari zela, Ameriketako Estatu Batuetako inportatzaile batek beste eztabaida bat jarri zuen mahai gainean. Barazkien gaineko zerga altuak ez ordaintzeko, inportazio-agirietan adierazi zuen tomatea fruta zela. Azkenean, zergak ordaindu behar izan zituen, AEBko Auzitegi Gorenak tomatea barazkia zela erabaki zuelako. Baina egun auziak ez du oraindik erantzun garbirik: biologikoki fruta da; historikoki baratzeko produktua da, barazkia; eta legalki ere barazkia da leku gehienetan, XIX. mendean epaile estatubatuarrek erabaki bezala.

IRAZUSTABARRENA, N.

Argia. 2021eko uztailaren 4a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer dio testuak tomatearen izenaz?

- a) Mattioli medikuak eta botanikariak jarri ziola.
- b) Hizkuntza gehienetan urrezko sagarra esaten diotela.
- c) Aztekek erabiltzen zuten izenetik datorrela.

2. Zer uste zuen Mattiolik tomateaz?

- a) Ornamentaziorako baino ez zuela balio.
- b) Pozoitsua izan ahal zela.
- c) Arazorik gabe jan ahal zela.

3. Zer ez zekiten European tomateaz hasierako urteetan?

- a) Aztekek nola landatzen zuten ez pozoitzeko.
- b) Zergatik pozoitzen ziren bakarrik pertsona batzuk.
- c) Nola kendu ahal zitzaion pozoia tomateari.

4. Zerk pozoitzen zituen aberatsak?

- a) Mahai-tresnek isurtzen zuten sustantzia batek.
- b) Tomateak jateak, batzuek berun asko baitzuten.
- c) Tomatea prestatzeko erabiltzen zituzten produktuek.

5. Zertarako adierazi zuten Ameriketean tomatea fruitua zela?

- a) Beraren kontsumoa bultzatzeko.
- b) Zerga gutxiago ordaintzeko.
- c) Inportazio-agiriak azkarrago tramitatzeko.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A GETXON TXAKURRAK ADOPTATZEKO KANPAINA

«Ez erosi, adoptatu!» lelopean antolatu du Getxoko Udalak txakurrak adopzioan emateko kanpaina. Helburua da kalean aurkitzen diren eta familia baten zain dauden txakurrei bigarren aukera ematea. Ekainean, hiru egunean, jendaurrean erakutsiko dira gaur egun Etxe-abereak Jasotzeko Udal Zerbitzuan dauden txakurrak.

Gainera, Udalak kartel bat prestatu du eta bertan adin eta arraza desberdinetako txakurrak ikusten dira. Gomendio bat ere jasotzen du kartelak, kalean txakur bat aurkitzen bada zer egin jakiteko: ez eraman etxera eta deitu Udaltzaingora edo Ingurumen Arlora.

Hiruka. 2020ko ekainaren 18a. Egokitua

B GASTEIZEN TXAKURRAK ADOPTATZEKO KANPAINA

Animaliak Babesteko Zentroan dauden txakur arriskutsuak adoptatzeko kanpaina egingo da larunbat honetan Loma Jeneralaren plazan, 10:00etatik 14:00etara.

Gaur egun, Armentiaiko Animaliak Babesteko Zentroan hogeita hamar bat txakur daude. Halako txakurrak edukitzeko, lizentzia bat behar da, eta horrek murriztu egiten du familia bat aurkitzeko aukera.

Txakur horien adopzioa bultzatzeko, «Ni ez naiz arriskutsua» lelopean, kanpaina jarri du martxan APASOS elkarteak. Elkarteko boluntarioek informazioa eskainiko dute eta txakur horien ezaugarriak azalduko dituzte. Aldi berean, bazkide berriak bilatuko dituzte.

<blogs.vitoria-gasteiz.org> Egokitua

C IRUÑEAN TXAKURRAK ADOPTATZEKO KANPAINA

Iruñeko Udalak txakurrak adoptatzeko zerbitzua eskaintzen du Animaliak Hartzeko Zentroan, eta horrela, adoptatzeko aukera ematen die herritarrei. Abenduan Udalak kanpaina bat abiatuko du ohiko sare sozialetan eta komunikabideetan «Bat gehiago familian. Adoptatu arduraz» lelopean.

Zentroa unibertsitateko errepidean dago eta ordutegia, astelehenetik larunbatera, 12:30etik 13:30era artekoa da, eta bada aukera telefonoz eta posta elektronikoz harremanetan jartzeko.

Halaber, Zentroan txertaketa-kanpainak egiten dira, ordenantza betetzen dela zaintzen da, eta kosk egin duten animalien jarritako salaketetan esku hartzen da.

<www.pamplona.es> Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

6.	Txakurrak arruntak ez direnez, baimen berezia behar da adoptatzeko.
7.	Egun batzuetan, jendeak txakurrak bertatik bertara ikusi ahal izango ditu.
8.	Txakurren inguruko beste kanpaina batzuk antolatzen dituzte.
9.	Kanpainaren bultzatzaileek kide berriak ere lortu nahi dituzte.
10.	Aholkua ematen diete txakur bat kalean aurkitzen dutenei.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.

Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu, **aparteko orrian idatzita aurkituko duzun sarrera kontuan izan gabe**.

GAIA: Zure lagun batek bidalitako mezua jaso duzu.

■ **Hauxe da jaso duzun mezua:**

The screenshot shows an email client window titled "Idatzi mezua". At the top, there are buttons for "Bidali", "Gorde", and "Baztertu". Below these are fields for "Norentzat:", "Gehitu Cc | Gehitu Bcc", and "Gaia:". The sender is identified as "Erantsi fitxategia". A rich text editor toolbar is visible with various icons for text formatting and alignment. The email content is as follows:

Aupa, Gorka!

Zer moduz? Zu ondo egotea espero dut. Mezu hau idazten dizut zure aholkua behar baitut.

Herriko udaletxean lanpostu bat geratu da libre eta zerrendan lehenengoa naiz. Gaur deitu eta eskaini egin didate. Udaletxean izena eman nuenean, ez nuen lanik eta ideia ona iruditu zitzaidan; baina orain Gasteizen lan egiten dut eta oso gustura nago. Herrian lan egiteak gauza onak ditu, baina txarrak ere bai, eta horregatik ez daukat argi zer egin.

Zeuk ere aukeratu behar izan zenuenez, zer gomendatzen didazu?

Besarkada handi bat eta laster arte.

Eneko

■ **Erantzun** iezaiozu zure lagunari horretarako eman zaizun aparteko orrian. **Kontuan izan mezuaren hasiera dagoeneko idatzita dagoela; beraz, zuk hortik aurrerakoa idatzi behar duzu.**

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «TOMATEA, NOBLEENTZAKO SAGAR POZOITSUA»

1.	C	2.	C	3.	B	4.	A	5.	B
----	---	----	---	----	---	----	---	----	---

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «TXAKURRAK ADOPTATZEKO KANPAINAK»

6.	B	7.	A	8.	C	9.	B	10.	A
----	---	----	---	----	---	----	---	-----	---